

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroak Txinako Gansu probintzarekiko konpromisoa indartu du 2018rako lankidetzaplan baten bitartez

*Ayerdi lehendakariordeak eta Gansuko gobernadoreordeak enpresa, kultura, turismo eta hezkuntza arloetan lankidetzan jarduteko akordioa sinatu dute*

Asteazkena, 2018.eko maiatzak 16

Garapen Ekonomikoko lehendakariorde Manu Ayerdik lankidetzahitzarmena sinatu du Txinako Gansu probintziako Herri Kongresuaren Batzorde Iraunkorreko gobernadoreorde He Weirekin, bi administrazioek hezkuntza, kultura, enpresa eta turismoaren arloko proiektu zehatzetan lankidetzan jardun dezaten, [2017ko ekainean](#) Nafarroan lortutako akordioak berretsiz. Sinaketa honekin, bi administrazioen arteko azken urteotako trukea erraztu duten adiskidantzazko loturak sendotu dira.



Bi administrazioen ordezkariak, akordioa sinatu ondoren.

Manu Ayerdik berriaz nabarmendu ditu 2018rako lortutako akordioak: hezkuntza arlokoa, ezagutza eta berrikuntzako erakundearen arteko loturak estutzea ahalbidetuko duena; turismoaren arlokoa, bisitak eta trukeak egiteko proiektuak bilduko dituen; eta Gansuko enpresei Nafarroa bisitatzeko aukera eskainiko dieten jarduerak antolatzeak akordioak.

Gainera, "apartekatuz" jo bi eskualdeen arteko topaketa hau, "2018rako bide-orri egokia definitzeko balio izan baitu. Honi esker, datozen urteotarako lan-ildo berriak ezartzen lagunduko duen konfiantzazko harreman sendoa finkatu ahalko dugu", adierazi du.

Konpromiso berri honen sinaketa Nafarroako ordezkariak aste honetan Asiako herrialde erraldoian zehar egiten ari den bidaiaren barruan gauzatu da. Gaur sinatutako akordioaz gain, ordezkariak Shanghaira abiatuko da SIAL China azokan parte hartzeko. Hauxe da nekazaritzako elikadura sektorearen Asiako topaketa nagusia, eta Foru Komunitatearen ordezkariak sostengua adieraziko diete azokan parte hartzen duten enpresa nafarrei.

## Gansu eta Zetaren Bide Berria


Gansu probintzia Zetaren Bidean kokatuta dago eta historikoki garrantzi handiko lekua izan da merkataritzaren nahiz kulturaren ikuspegitik. Azken urteotan, probintzia honen garapena sustatzea izan da Txinako gobernuaren helburu nagusietako bat.

Zetaren Bide Berria deritzon ekimena –One Belt One Road (OBOR) izenaz ere ezagutzen da– hiru kontinente barne hartu eta 150 mila milioi dolarretik gorako inbertsioa duen asmo handiko proiektu bati atxikita dago. Gansu probintzia da megaproiektu honetarako “ate” berria, eta hortik sortua da Nafarroak Asiako herrialde erraldoiko probintzia horrekin dituen harremanak sendotzeko interesa.

Nafarroako Gobernuaren eta Gansu probintziaren arteko lehendabiziko lankidetzeta-hitzarmena 2005ean sinatu zen, bi lurraldeen arteko adiskidantza-harremanak bultzatu eta industria, nekazaritza, energia, zientzia eta teknologia, kultura eta turismoaren arloko lankidetzeta sustatzeko.

2017an, akordioa berreskuratu eta berritu zuten Garapen Ekonomikoko lehendakariorde Manu Ayerdik eta Gansu (Txina) Probintziako Herri Kongresuaren Batzorde Iraunkorreko lehendakariorde Luo Xiaohuk.

Nafarroa eta Gansuren arteko harremanen berraktibazioaren ondorioz, 2017ko irailean, Nafarroako ordezkari bat Txina aldera joan zen, Gansu probintziako agintariekin elkarrizketatu eta Zetaren Bide Berriari buruzko nazioarteko biltzar batean parte hartzeko asmoz.




Manu Ayerdi eta He Wei, akordioa sinatzen.

### Galería de fotos



Conversación entre Ayerdi y Wei.



Intercambio de recuerdos.